



**UDALBATZAK 2010eko MARTXOAREN 18AN  
EGINIKO EZOHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaleko bilkura-aretoan, bi mila hamarreko martxoaren hemezortziko 08:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- M<sup>a</sup> del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTINEZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- M<sup>a</sup> Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Gorka MAUDES MIGUELTORENA jaunak (atxiki gabeko zinegotzia).

Orobat, bertan dago udal kontu-hartziale Txema ARENZANA GARCIA jauna.

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE  
PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL  
DIA 18 DE MARZO DE 2010**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 08:00 horas del día dieciocho de marzo del año dos mil diez, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ, los siguientes Concejales:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- M<sup>a</sup> del Mar CARRILLO GASCÓN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mikel DURÁN GONZALO
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luís Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- José Manuel FERRADÁS FREIJO
- José LEGORBURU AYESTARAN
- Lucía PERALTA RODRÍGUEZ
- M<sup>a</sup> Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

No asiste excusando su asistencia Gorka MAUDES MIGUELTORENA (Concejal no Adscrito).

Igualmente Asiste el Interventor Municipal el Sr. Txema ARENZANA GARCÍA.

Asiste y da fe del Acto, el Secretario General D. Fco. Javier LESCA EZPELETA.

**Puntu bakarra. Markolako Enplegu-lantegi proiektua onartzeko proposamena.**

Proiektu honekin 25 urte baino gehiago dituzten langabetuak lan merkatuan sartzea sustatu nahi da, eta behar duten kualifikazioa eta lan esperientzia eman. Horretarako, beharrezkoa da lan egiteko aukera ematea, eta aldi berean prestakuntzarekin jarraitzea.

Ondorengo urratsak eman dira:

- 2001-11-14ko Lana eta Gizarte Zerbitzuetako Ministerioaren Agindua. Lantegi Eskolen eta Ofizio Etxeen, Enplegu Tailerren eta Sustatzeko eta Garatzeko Unitateen egitasmoak arautzen dituena.

- Estatuak Gipuzkoan duen Enplegu Zerbitzu Publikoaren Probintzia-Zuzendaritzaren 2010/02/11ko erabakia, Enplegu Tailerren eta Sustatzeko eta Garatzeko Unitateen programei diru –laguntzak emateko 08/2010 zenbakiko deialdia onartzen duena.

Era berean, hainbat Udal lokal eraberritzeko Cristina Ureta Peña arkitekto teknikoak egindako Obra Proiektua ikusi dute, baita horretarako Monica Saralegik egindako memoria ere. Horren kostua 639.240,19 €koa da.

Halaber, Kontu-hartzaleak eginiko txostena.

Kontuan hartu behar da Enplegu Tailerra proiektua onartzeko egindako eskaeran jasota dagoela Markola Enplegu Tailerraren Proiektuari hasiera 2010eko ekainaren 7a baino lehen emango zaiola.

**Punto único.- Propuesta de aprobación del Proyecto de Taller de Empleo Markola.**

Considerando el interés de promover la inserción en el mercado de trabajo de desempleados, mayores de 25 años, dotándoles de la cualificación y experiencia profesional necesarias mediante la realización de trabajo productivo en alternancia con el perfeccionamiento de la cualificación.

Vistas:

- La Orden del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales de fecha 14-11-2001, por la que se regulan los programas de Escuela Taller y Casas de Oficios, Talleres de Empleo y Unidades de Promoción y Desarrollo.

- La Resolución de 11/02/2010 de la Dirección Provincial del Servicio Público de Empleo Estatal en Gipuzkoa, por la que se aprueba la convocatoria nº 8/2010 para la concesión de subvenciones a los programas de Talleres de Empleo y Unidades de Promoción y Desarrollo.

Visto el Proyecto de Obras de diversos locales Municipales realizado por la Arquitecto Técnico Cristina Ureta Peña, así como la Memoria elaborada al efecto por Mónica Saralegui, cuyos costes ascienden a 639.240,19 €

Visto el informe emitido por el Interventor municipal.

Teniendo en cuenta que en la solicitud de aprobación del Proyecto de Taller de Empleo se hace constar que el inicio del proyecto del Taller de Empleo Markola sea anterior al 7 de junio de 2010.



Udal lege-aholkulari Begoña Bueno andreak gaiari buruzko txostenetan egin du.

Eta Gizarte Zerbitzuetako batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

\* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du lantegi-eskolak hurrengo urteko urri arte jarraituko duela, baina transferentziak direla medio, deialdia aurtengo jarduketara mugatuta dagoela. Horrez gain, bere iritziz, lantegi-eskolak enplegu-tailer gisa bideratzeko aukera ematen du, hain zuzen, 25 urtetik goragokoek bertara joateko aukera izango dutelako, eta, dagoen langabezia kontuan izanda, hori garrantzitsua dela uste du. Ondoren, bi lantegi, bakoitzak 12 lagunekoa, egiteko asmoa dutela adierazi du. Lantegi-eskola bat 30 lagunentzako eguneko menua egiteko izango da, gainera beretzat pozgarria da gai hau Gizarte Zerbitzu arloarekin lotzea, hain zuzen menu horiek arloko behartsunuen artean banatuko dituztelako. Horrezaz gain, departamentu horrek berak egingo du bertan esku hartuko dutenen hautaketa. Eta bestalde, Pintura eta Pladur lantegia udal lokal zenbait konpontzez arduratuko da. Ondoren, esan du hasiera batean lanpostuak emakumeekiko ez direla ez esklusiboak ez baztertzaileak, ezta gizonezkoekiko ere, nahiz eta, bere aburuz, genero ikuspuntu bertan hobeto jasota dagoen. Amaitzeko, adierazi du Udalak auren ez duela aportaziorik egin beharko, hain zuzen, diru-laguntzak banatu dituzten bezala banatu dituztelako.

\* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia), lan-egoera aitatu denez, ez du uste egoera horren irtenbidea neurri mota horiengatik etorriko denik, lagunduko dutela errekonozitzen badu ere. Bere iritziz enplegua sortzeko beste politika mota bat

Visto el informe emitido por la Asesora Jurídica Municipal Begoña Bueno.

Vista la propuesta de la Comisión de Servicios Sociales.

Se producen las siguientes intervenciones:

\* Toma la palabra la Sr. Peña (EAJ/PNV) y señala que la Escuela Taller sigue hasta octubre pero que la convocatoria de este año, debido al tema de las transferencias, limita la actuación al presente año. Además dice que se abre la posibilidad de enfocar la Escuela Taller como talleres de empleo con una diferencia importante en lo referido a la edad de los destinatarios que son los mayores de 25 años, dato que cree que es positivo debido al índice de paro que existe. A continuación explica que se plantean dos talleres de empleo de 12 personas cada uno de ellos. Uno de los talleres va enfocado a la elaboración de 30 menús diarios, con la satisfacción que supone unir este tema con el área de servicios sociales ya que se distribuirán entre los usuarios más necesitados de esa área. Además, será ese mismo departamento el que haga la selección de los destinatarios. Por otro lado dice que el Taller de Pintura y Pladur se ocupará de la reparación de determinados locales municipales. Continua diciendo que, "a priori", los puestos de trabajo no son exclusivos ni excluyentes de las mujeres aunque tampoco de los hombres, pero sí que tiene mejor cabida la perspectiva de género. Para finalizar dice que el Ayuntamiento, este año, no tiene que hacer aportación alguna debido a la distribución de subvenciones que se ha realizado.

\* El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) señala, ya que se ha mencionado la situación laboral, que, probablemente, la solución a esa situación no vendrá dada por este tipo de medidas, aunque hay que reconocer que ayudarán. Añade que lo que se



burutu behar da, ziur aski udalerri honek eta besteek ezin izango dutena gauzatu, eskumen horiek beste erakundeen esku daudelako. Hala eta guztiz ere, gogorarazten du beste erakunde horiek izen eta abizenak dituztela. Bere iritziz lan-munduan txertatzeko politikak eta egiturazkoak dira beharrezkoak, benetan horiek emango diotelako irtenbidea gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari den lan-arazoari. Jarraian, gogorarazi du ekainean, ildo bereko beste programa batek hamabost lanpostu sortzeko aukera eman zuela, gero Udalbatzak zortzira murriztu bazuen ere. Era berean, azaroan Eusko Jaurlaritzak aspaldidanik langabezián zeudenak kontratatzeko beste programa bat ipini zuen martxan, Udalbatza honek alboratu zuena. Bere aburuz, Udalbatzak enplegua sortzeko politiketan, iraupen luzeko langabetuentzako enplegua sustatzeko politika irmoagoak egin behar ditu eta ez du mugatu behar integrazio-programa baliatzerako bakarrik, baizik eta ausartagoak izan behar dute, eta pertsona horiek kontratatzeko aukera emanez gauzatu behar dituzte beroriek. Eta, berriro dio, osoko bilkurara eraman duten proposamena egokia dela, baina ez dela nahikoa. Gainera, beste une batzuetan, holako aukera-mota izaten dutenean, Udalbatzaren jarrera ez da izan eurei gustatuko litzaiekeena, gaineratu du.

necesita es otro tipo de políticas de creación de empleo, que probablemente estén fuera del alcance de este y del resto de los municipios, entendiendo que son competencias de otras instituciones. No obstante, recuerda que en esas instituciones también hay nombres y apellidos. Cree que se necesitan políticas de inserción laboral y estructurales, que es lo que verdaderamente puede suponer la solución del problema laboral, que cada vez está adquiriendo mayor relevancia. A continuación recuerda que, en junio, otro programa en esta misma línea daba la oportunidad de crear quince puestos de trabajo, que el Pleno redujo a ocho. También recuerda que en noviembre el Gobierno Vasco puso en marcha otro programa que daba la opción de contratar a parados de larga duración, que fue obviado por esta corporación. Piensa que la actitud de la corporación, en estas políticas de fomento de empleo, de inserción de parados de larga duración, debe ser más firme y que no debe limitarse a hacer uso de los programas de integración, sino que hay que ser más valientes y llevarlos a cabo haciendo uso de esas posibilidades para la contratación de esas personas. Insiste en que la propuesta que hoy se ha traído al Pleno es acertada pero insuficiente y en que en otros momentos, ante posibilidades de este tipo, la actitud de la corporación no ha sido la que a ellos les hubiera gustado.

\* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) uste du herriak ez duela erreminta gehiegirik langabeziaren arazoari aurre egiteko, alegia, ez soilik orokorrean, ezta herrian bertakoei ere. Bere iritziz, ahal dutena egiten dute eta gaiari arreta eta denbora eskaintzen diote. Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) aitatu ditu Aldundiaren programarekin kontratatu ziren pertsonak, baina duela gutxi INEM-Tokiko Udalbatzak popularki "zazpi milak" deituriko programa egin dute, Eusko Jaurlaritzak Euskadi osorako proposatzen zituen lanpostuekin. Hasiera batean hirurogeitik gora lanpostu dira, hil pare batez

\* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) cree que el municipio no tiene mayores herramientas para luchar contra el problema del paro, no ya a nivel general sino ni siquiera con los propios parados del municipio. Piensa que hacen lo que pueden y que le dedican tiempo y atención al tema. Añade que el Sr. Murua (Concejal no Adscrito) ha mencionado las personas que se contrataron dentro del programa de la Diputación, pero recientemente se ha hecho también el programa INEM-Corporaciones Locales, el tema llamado popularmente de "los siete mil", con los puestos que propugnaba el Gobierno Vasco para todo Euskadi.



ikusiko badute ere zenbat izango diren aparteko izaeraz kontratatuak, ordurako, maiatzean edo ekainean hasita, egingo dituztela itxaroten dutelako, eta gero azaroa arte jarraituko dute. Bere aburuz, eskualdean, inguruan eta Errenerian bizi diren biztanle kopurua kontuan hartuta, ondo geratu dira, Udalak egiten duen esfortzuak eta ingurukoek egiten dituztenak konparatz gero. Bera ados dago neurri horrek, besterik gabe, ez duela arazoa konponduko, baina laguntzen duela pentsatzen du. Gehiago egin nahiko zuketen, baina dituzten baliabide ekonomiko, tekniko eta eskuduntzak dituzte. Amaitzeko, Gizarte Zerbitzuetako ordezkari Peña andreak (EAJ/PNV) esan duen moduan, gai honek Udalarentzako suposatzen duen ahalegin ekonomikoa oso arrazoizkoa da, zeren eta, txostenak dioen moduan, INEMek ekarpen esanguratsua egingo du.

\* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) galdu du ea gai horrek zer nolako eragina izango duen 2010eko Aurrekontuan.

\* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ez duela eraginik izango esan du. Lantegi-eskola hau 2010 eta 2011. ekitaldi ekonomikoaren artean dago eta INEMek egingo duen ekarpenak dena soberan estaliko du, eta ondorioz, Udalaren aldeko superabita sortuko da, eta hori gordeko da 2011n Udalak egin beharreko aportazioari eransteke. Horregatik, kontuhartzailearen txostenean jasotzen da 2011ko Aurrekontua eztabaidatzeko garaian 100.000 euro inguruko partida bat sartu beharko dutela.

\* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du berak bi urtetan (2010-2011) burutuko den programa dela ulertu duela. Bere zalantza da aurrekontuaren barruan konpromisozko kreditu gisa azalduko den.

Han llegado hasta sesenta y tantos puestos de trabajo, lo que se verá en un par de meses que es para cuando está prevista la contratación de manera extraordinaria de esas personas, ya que se comenzarán a contratar el mes de mayo -o junio- y sucesivamente hasta el mes de noviembre. Cree que, dentro de la comarca, del entorno y de acuerdo con la importancia poblacional que tiene Erreneria, quedan bien respecto a los esfuerzos que hace este Ayuntamiento y a los que se hacen en el entorno. Añade que está de acuerdo en que esa medida por sí sola no resuelve el problema, pero, todo ayuda. Podrían querer hacer más, pero se hace lo que los recursos económicos, técnicos y competenciales les permiten. Finaliza señalando, como ha dicho la Sra. Peña (EAJ/PNV), Delegada de Servicios Sociales, que el esfuerzo económico que este tema supone para el Ayuntamiento es muy razonable, puesto que, como dice el informe, la aportación del INEM es bastante significativa.

\* El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) pregunta como repercute este tema en el Presupuesto 2010.

\* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que no tiene repercusión. Este Taller está a caballo entre el Ejercicio Económico del año 2010 y el 2011 y la aportación del INEM lo cubre sobradamente, lo cual "genera un superávit" para las arcas municipales que será reservado para unirlo a la aportación que debe hacer el Ayuntamiento en el Ejercicio 2011. Por eso, en el informe del Interventor se recoge que cuando se debata el Presupuesto de 2011 habrá que reservar una partida en torno a los 100.000 euros.

\* El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) manifiesta que ha entendido como es un programa que tiene que ejecutarse en dos años: 2010 y 2011. La duda que tiene es si tiene que aparecer como crédito de compromiso dentro del presupuesto.



\* Arenzana kontu-hartziale jaunak jakinarazi du diru-lagunza iristen denean 2010eko Aurrekontuan egindo dutela egin beharreko aldaketa. Gaineratu duenez, 2010eko aurrekontua gorantz aldatuko dute, baina ez da izango Udalaren finantzaziorik. Alegia, 2010ean finantzazioan soberakin bat sortuko da, urte horretako diru-lagunza behar dutena baino handiagoa izango delako, eta soberakin hori Udalak 2011rako egingo duen 131.000.- aportazioari gehituko zaio. Amaitzeko, proposamena onartzen badute, berak Gizarte Zerbitzuak Sailarekin aztertuko du kreditu-aldaketa nola egin, nolabait akordio-proposamenean jasotzen den konpromisoarekin. Hau da, osotara 2010 eta 2011ko Aurrekontuari 600.000 eurorekin eragingo diola, nabarmendu du.

\* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du ados dagoela aurrez mintzatu direnek esan dutenekin, alegia, ez dagoela langabezian dauden kolektiboek dituzten arazoak behin betiko konponduko lukeen neurririk. Baino, bere irudiko programa hori kontratazioko besteekin parekatzen da, eta horiek beretzat ez dira baliokideak. Bere iritziz, programa horrek plus bat du, izan ere, ez baitute 34 pertsona horiek soilik kontratatuko, baizik eta prestatu eta birziklatuko dituzte, eta ondorioz, beste panorama bat izango dute enplegua ezarekiko eta gainera beste empresa motak kudeatzeko aukera izango dutela uste du. Amaitzeko, langabetuen indizea jaisteko hartzan diren neurri guztiak positiboak direla, baina mota honetakoak bestearekiko plus bat dutela esan du. Horrekin ez du esan nahi besteak ez direla egin behar, baizik eta bakoitzari bere balioa eman behar zaiola.

\* El Interventor Sr. Arenzana informa de que su repercusión en el Presupuesto 2010 se tiene que hacer mediante la oportuna modificación cuando llegue la subvención. Añade que en el 2010 el presupuesto del Ayuntamiento se modificará al alza mediante la formula que proceda, pero no habrá financiación propia del Ayuntamiento. En el 2010 habrá una desviación positiva en financiación por un importe que se corresponde con el exceso de financiación que les han subvencionado, con lo que se financiará una parte, más 131.000 euros que aportará el Ayuntamiento en el 2011. Finaliza diciendo que en el momento en que esto se apruebe estudiará con el departamento de Servicios Sociales hacer una modificación de créditos, con ese compromiso que, de alguna forma, ya queda recogido en la propuesta de acuerdo. Es decir, que va a afectar al Presupuesto 2010 y al 2011 por los 600.000 euros en su conjunto.

\* La Sra. Peña (EAJ/PNV) está de acuerdo con lo manifestado por intervinientes anteriores en relación a que no existe una medida que solucione definitivamente y desde todos los puntos de vista los problemas de los colectivos de parados. Pero, está percibiendo que se equipara este programa en concreto con otros de contratación pura y dura y que a ella no le parecen equivalentes. Cree que programas como el actual tienen un plus que se traduce no solo en la contratación de esas personas durante un año sino también en que esas 34 personas, que formarán parte de este programa, se formarán o se reciclarán, con lo que se les abre otro panorama de cara a su situación de desempleo además de la posibilidad de gestionar prácticas en otro tipo de empresas. Para finalizar insiste en que todas las medidas encaminadas a disminuir el índice de parados son positivas, pero que las de este tipo tienen un plus con respecto a las demás. Con lo manifestado no dice que las demás no haya que hacerlas, sino que hay que darle su valor a cada



cosa.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, aho batez,

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad,

**E R A B A K I D U****A C U E R D A**

1. **Onartzea** “MARKOLA ENPLEGU ESKOLAK” egindako proiektu-eskaera, ondorengo lanak egiteko: Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileentzako 30 eguneroako menuen elaborazio eta banaketa zerbitzua sortzea eta hainbat Udal lokal eraberritzea gero Zerbitzu komunitario, kulturalak eta haurtzaro zerbitzuek baliatzeko.
2. **Eskatzea** Estatuak Gipuzkoan duen Enplegu Zerbitzu Publikoaren Probintzia-zuzendaritzari 508.087 €-ko diru-laguntza (BOSTEHUN ETA ZORTZI MILA LAUROGEITA ZAZPI EURO) proiektua finantzatzeko.
3. **Eskatzea** Markola Enplegu Tайлerraren proiektua 2010eko ekainaren 7a baino lehen hastea.
4. **Konpromisoa hartzea** urteroko udal aurrekontuan partida bat sortzeko Estatuak Gipuzkoan duen Enplegu Zerbitzu Publikoaren Probintzia – Zuzendaritzak diruz lagunten ez duen kostuaren zatia ordaintzeko, hain zuzen ere 131.153,19 € (EHUN ETA HOGEITA HAMAIIKA MILA EHUN ETA BORREGEHITA HIRU EURO ETA HEMERETZI XENTIMO).

1. **APROBAR** la solicitud de proyecto de “TALLER DE EMPLEO MARKOLA” cuyo objeto de actuación será: la creación de un servicio de elaboración y distribución de 30 menús diarios, para personas usuarias de Servicios Sociales y Rehabilitación de diversos locales Municipales destinados a Servicios Comunitarios, Sociales, Culturales y de infancia.
2. **SOLICITAR** a la Dirección Provincial del Servicio Público de Empleo Estatal en Gipuzkoa una subvención de 508.087 € (QUINIENTOS OCHO MIL CON OCIENTA Y SIETE) para la financiación del proyecto.
3. **SOLICITAR** que el inicio del proyecto de Taller de Empleo Markola sea antes del 7 de junio de 2010.
4. **ADQUIRIR EL COMPROMISO** de consignar anualmente en el presupuesto municipal la parte del coste del proyecto de Taller de Empleo que no subvencione la Dirección Provincial del Servicio Público de Empleo Estatal en Gipuzkoa cuyo importe total asciende a la cantidad de 131.153,19 € (CIENTO TREINTA Y UN MIL CIENTO CINCUENTA Y TRES EUROS CON DIECINUEVE)

-----  
Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 08:20 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 08:20 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente



Erkidego Autonomoko paper ofizialean,  
\_\_\_\_ zenbakitik \_\_\_\_ ra, eta nirekin batera Alkateak  
sinatu du. Egiaztatzen dut.

Acta en los folios números \_\_\_\_\_ al \_\_\_\_\_ del  
papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando  
conmigo el Alcalde. Certifico.